



## Gozozaleen paradisu

**TOLOSA ▶** Giro heze eta bustia izan arren, gozo bila aritu zirenek aurkitu zuten beren saria, atzo, X. Tolosa Goxua azokan

**LEHIAKETA ▶** 15 lagunek hartu zuten parte sagar tarta lehiaketan; Astiazaranek eta Iraolak jaso zituzten lehen bi sariak ▶ 4-5



**Erakusleiho.** Gozogileen esanetan, azoka euren lanaren erakusleiho egokia da: «Bertan ezagutzen gaituzte, baina beste eskualdeetatik ere jende asko etortzen da egun honetan, eta baliagarria da oso». J. A.



**Urteurrena.** Tolosaren 750. urteurrena gogoan izan zuten Gorrotxategikoeek, eta txokolatetzko bi metroko logoa egin zuten. J. ASTIBIA



**Berezitasunak.** Saizarrekoek frutaz betetako hostorea, Ezeizakoek teilak eta zigarriloak, eta Gorrotxategikoeek bonba bereziak... J. ASTIBIA

**TOLOSA ▶**

### Bi aktore tolosarren ibiliak

Joseba Usabiaga eta  
Iker Galartzarekin  
solasean ▶ 6-7



Usabiaga eta Galartza. ARGAZKI PRESS

**TOLOSA ▶**

### Inauterietako sariak banatu dituzte

Epaimahaiak «maila  
ona» azpimarratu du ▶ 5



## UZTURRETIK ▶ XABIER TELLERIA

## Afrikako chaman-a



**O**rain egun gutxi jaso dut arazo guztiak konpontzeko bidea, etxeko buzoian. Afrikatik gurera etorritako auzi edo kurandero baten eskutik egindako eskaintza. Eta ez bromatakoa: berdin tabako edo alkoholarekin ditugun arazoak bideratzeko, uztarkidearekin izandako gorabeherak goxatzeko, bide okerrean amildutako negozioa zuzentzeko, lanpostu hobea

lortzeko edo bezeroak erakartzeko, negozio jabeen kasuetarako. Irtenbidea azkar eta efikazak ematen omen ditu; gainera, garantia osoarekin. Denetatik probatu ondoren bilatutako emaitzarik lortu ez dutenak, desesperatuak, ditu gure chamanak negozioarako pagotxa, eta ez makala.

Boteprontoan bururatutako aurreneko galdera, ea zer arraio egiten duen orokonpontzaile honek bere sorterria den Afrikatik urrun; halako azkartasun eta eraginkortasunaren jabe izanik, bertako gosetea, gaixotasun andana eta gainerako miseriak konpontzeko ahalmena alferrik galtzen. Eta hango arazoei irtenbiderik eman gabe,

zeinen erraz moldatu den gure mundu modernoago honetan ditugun berezko gaitzak sendatzen.

Ez da zaila ahoberoa hauen seriotasun falta antzematen. Lehendik ere badaukagu eskarmeturik. Gure inguruan jite honetako chaman gehiegi ezagutu dugu eta ezagutzen dugu, auzoaren gaitzak eta flakeziak bistaraztera emanak, eta norberaren ajeak pasatzeko gaitasunik gabeak. Besteentzako erremedioa seinatzen trebeak, euren burua ez nolanaiko abileziaz jantzi zaleak. Ahal bada, horretan saiatu behar genuke: desesperoa erori gabe jendilaje honen bazka ez izaten.

## ESANA ▶



**KIKE AMONARRIZ**  
SOZIOLOGOA ETA FILOLOGOA

«Tolosan gazteen arteko euskararen erabilera %16koa zen 1985. urtean eta gaur egun %60 ingurukoa da»

'Galtzaundi' (2006-02-21)

## IRITZIA ▶ JESUS MARI ALDUNBERRI, JOSE MARI MUJIKI, EIDER IMAZ (TOLOSALDEKO EZKER ABERTZALEAREN IZENEAN)

## Dispertsio politikaren aurka eta prozesu demokratikoaren alde

**I**zugarrizko abiaduran bizi gara, eta batzuetan ez gara konturatu ere egiten zein urrats garrantzitsuak ematen ari diren Euskal Herrian.

Azkenaldi luze honetan nabarmen-tzen ari den bezala, egun bizi dugun marko politikoa ez da gai euskal herritarren nahiak eta beharrak asetzeko.

Bestalde, bizi dugun egoera politikoa honek ez du irtenbiderik bilatuko egungo eszenatoki politikoan —Euskal Herri zatikatu batean, Frantziako eta Espainiako estaturen menpekotasunean—. Beraz, gure herrian bakea eta irtenbide politikoa nahi badugu, hori marko berri batera iraganaz emango da.

Hau ez da ezker abertzaleak soilik egiten duen hausnarketa bat, eta jadanik eragile sozial, sindikal eta politiko ezberdinak bat datoz ideia honekin. Eszenatoki berri bat behar dugu. Eta horretarako prozesu demokratiko bat eman beharra dago. Zentzu honetan, pauso eta urrats ezberdinak ematen ari gara Euskal Herrian. Baldintzak badaudelako.

Bidea, ordea, ez da samurra izango. Izan ere, interes handiak daude gauzak dauden bezala iraun dezaten. Estatuak bere esku dituen arma guztiak erabiliko ditu egoera hau ez gainditzearren, eta zentzu honetan ulertzen dugu, besteak beste, espetxe politika gogortzearen bidean hartzen ari diren neurri basatiak.



Ostegun eguerdian LABek Tolosan deitutako manifestazioaren irudia. NOELIA LATABURU

Espetxe politikaren ondorio garbia izan dira Igor Angulo eta Roberto Saiz euskal preso politikoen heriotzak.

Bi hilketak hauek sorrarazi duten samina areagotu egin da PNVren eskutik Erztzaintzak izan duen jarrera ikusita. Izugarriak dira Santurtziko edo Portugaleteko irudiak, eta irudi haiek ikusi ondoren hemen esan daitezkeen hitzak soberan egon daitezke. Eusko Jaurlaritzatik konfrontazioaren bidea bilatu du, baina ezker abertzalea ez da beren nahian erori.

Hotza eta zinikoa behar du pertsonak, lagun hauen gorputzak beren lagun eta senideek nahi izango luketen moduan

agurtzera gerturatu zirenei tiroka erasotu eta mila egun baina gehiago daramatzagula hildakorik gabe esateko. Gezur galanta. Guztiok dakigu denboraldi honetan poliziaren eskutan, espetxetan edota espetxerako bidai gorinetan hildakoak egon direla. Ez al dute hauek kontatzen akaso?

Baina, esan bezala, ez gara konfrontazioan erori, eta haratago joan nahi izan dugu, konpromiso garaia delako. Ezker abertzaleak duela 16 hilabete Anoetan egin zuen proposamenari heldu eta aurrera begira lanean jarraitu nahi du: gure apustua garbia da, irtenbidearen bila goaz.

Ziur gaude herriak hainbeste nahi duen bake egoerara iritsiko garela, nahiz eta Estatuak ez nahi izan, nahiz eta PNV-PSOErekin dituzten hitzarmen ekonomikoak lehentasuna dute nonbait —marko zaharkituan eroso dagoen eta aldaketarik ez dutela nahi garbi uzten dituzten beren jarrerarekin—.

Egoera honetan, ezker abertzaleak «dispertsio politikaren aurka eta prozesu demokratikoaren alde» erantzuteko eguna izendatu zuen osteguna. Eta herriak erantzun garrantzitsua eman duela esan behar dugu. Urrats berri bat, prozesu demokratikoaren aldeko pauso berri bat. Izan ere, egoera hau gainditzeko baldintzak badaudela diogunean herriaren borrokari esker iritsi baikara puntu honetara: erresistentzian lan egin dutenei eta egiten dutenei esker, errespalduei esker, langileen borrokari esker. Eta aurrerantzean urratsak ematen badira ere borrokari esker izango baita.

Zoritxarrez, oztipoak egongo dira, eta ikusi besterik ez dago Gobernuak eman duen pauso errepresio berria, prozesurako ezinbestekoak izango diren kideak atxilotzeko mehatxuekin erantzun dute. Hori da beren bidea: errepresioa; beraz, orain arte bezala, etor daitezkeen erasoei erantzutera deituko ditugu berri ere herritarrak.

## hilberria ▶

## Andres Mendizabal Eizagirre



BALEA Elkarte

Zoriak du bere hitza bete,  
joan da kide genuena maite,  
BALEAren omenez,  
Andres gero arte.

ORIO, 2006ko martxoaren 12a

## hilberria ▶

## Mikaela Zubeldia Artano

(Benedikto Galdosen alarguna)

—Goian bego—

Zure irrifarrea gogoan,  
zure maitasuna besoetan,  
gure poztasuna zuregan!

Betiko amona Mikela.

Zure seme-alabak eta bilobak



LEGAZPI, 2006ko martxoaren 12a

▶ hilberriak  
▶ urteurrenak  
▶ eskertzak

**Gipuzkoan**  
**50.000 etxetara**

HITZA guztietan prezio bereragatik

**ESKELAK**  
19:00ak arte hartzen dira  
Telf.: 943 65 56 95  
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

GUTUN@K ▶

**Tolosako asistentzia espezializatua pribatizatzen ari da Osakidetza**

Gutun honen bitartez, Tolosako espezialitateetako ambulatortorioko langileek gure kezka eta haserrea azaldu nahi ditugu aipatutako zentroan ematen ari diren urratsei dagokienez; atentzio espezializatuko kontsultak Asuncion klinika pribatura eramaten ari baitira, zeinaren jabea Inviza enpresa den eta gerentea bertako kide Jesus Gomez Montoya jauna.

Gomez Montoya jaunak klinikaren ardura hartu zuenetik, hainbat saiakera egin ditu Tolosaldeko osasun zerbitzu guztien kudeaketa bere gain hartzeko; horren fruitu da aipatutako zentrorra eraman dituzten errekurto publikoen zerranda luzea: lehenak larrialditako zerbitzua, hospitalizazioa, azterketa radiologikoak (TAC eta RMN), teknika endoskopikoak, eta abar izan ziren. Ondoren, oftalmologiako plaza bat hutsik gelditu zenean Osakidetza pertsonalarekin bete beharrean, kliniken esku gelditu zen; horrela, Tolosako ambulatortorioa azalduko espezialitateko plaza bakarrekin gelditu zen. Era berean, saiatu ziren traumatologiako plaza lekuz adatzen, baina azkenik ezerezean gelditu zen saiakera, presio politikoak tarteko zirela. Duela gutxi digestio aparatuari zegoen plaza hutsik gelditu zen erretrato batengatik; hau ere bete gabe utzi dute. Larritu egiten gaitu hutsik gelditu diren plaza horiek guztiak denbora gutxiren buruan Jesus Gomez Montoya jaunaren eskaintzetara egokitu ote diren.

Orain urologiako plaza —Donostiako Ospitalari dagokiona Anbulatortorioko gainontzeko espezialitateen moduan— izan da behin betiko Klinikara pasatu dutena. Hau ere osasun zerbitzu publikoak galtzen duen beste plaza bat da, eta ziurrenik ere ez da azkena izango; izan ere, hainbat zurrumurruk diote 2006ko irailean erreabilitazioaren espezialitatea ere Klinika pribatura pasako dela.

Gorabehera hauen guztien

atzean etengabean egon den iluntasunak eta isiltasunak gertatzen ari den guztia pertsona zehatz baten onurarako soilik dela pentsarazten digu. Bereziki larria iruditzen zaigu plaza hutsak erabiltzea enpresa pribatu baten onurarako, zeinaren interes nagusia onura ekonomikoa den, eta ez hutsik dauden plazak sustatzea eta betetzea.

Osakidetzaren asmoa Tolosaldeko osasun zerbitzua pribatizatzea bada, horrekin ados egon gaitzeko ala ez; baina onartezina da gure etorkizunaren gaineko informazioa ukatzea eta ezkatutzea. Era berean, are onartezinagoa da guztiak ordaintzen dugun diruarekin zerbitzu publiko bat kentzea pribatuaren eskuetan uzteko. Beraz, uste dugu behin-goz osasun kontseilariak garbi hitz egiteko ordua dutela; iritziz publikoari eta gure ambulatortorioko langileei epe ertain eta laburrerako Tolosaldeko osasun arretan dituzten asmoen berri eman behar baitie.

Informazioa eta gardentasuna nahi dugu. Azalduko guztiak Asuncion klinikan dauden kontsulta berberen onura darraren eta espezialitateetako ambulatortorioko kontsulta batzuen erabilera urria aztertze ere eskatzen dugu.

Laburbilduz, zer ari da gaizki egiten Tolosako espezialitateetako ambulatortorioan dasegerpena bideratzeko klinika pribatuaren onurarako?

Azkenik, interesezko interpretazioak ekiditeko, garbi azaldu nahi dugu hausnarketa hauen guztien atzean ez dagoela inongo interes politikorik; gure lanpostuek eta zerbitzu publikoen erabilera okerrak kezkatzen gaituzte.

Adeitasunez,  
ANA ISABEL BELLOSO CEA,  
M<sup>o</sup> SOLEDAD MURUA GARRO ETA  
BESTE 42 SINATZAILE ▶ TOLOSAKO  
ESPEZIALITATEETAKO  
ANBULATORIOKO LANGILEAK (TOLOSA)

**PNV-EA, hau aurpegia!**

Hau aurpegia, bai, PNV-EAK berriro erakutsi dutena. Oraingoan, idatzi baten bitartez, inongo justifikaziorik ez duten jokaera batzuk estali asmoz.

Batetik diote: «Anoeta Udalean, beste herrietan bezala, ematen den bazterketa ez dela beren errua, alderdien legea onartu zuten estatu mailako talde jakin batzuen, bai-zik». Guztiok genekien, denborak erakutsi digun bezala, PNV-EAK zutela interesik handiena ezker abertzalea instituzioetatik kanpo uzteko. Horrela bidea libre gelditzen zitzaielako beren etekin pertsonal eta alderdikoak lehenetsiz Udala antolatuko. Guk bere garaian, herritarrek dakiten bezala, aurkeztu genuen aukera legala, LOREG delako legearen 182.2. artikulua —gerora Azkoitian eman zena— Udala hauteskunde emaitzen arabera osatua izan zedin, alegia, Alarcosek, Arsuagak eta Egurzak dimititu zezaten, eta kargua, zegoekin bezala, Anoetarrok Auzolanean plataformako kideek har zezaten; baina beraiek uko egin zioten, ez zitzaizien interesatzen nonbait.

Lotsa gutxirekin, biktimarena egiten dugula diozue, baina egia zera da, Anoetan gutxienez 409 biktima gaudela, zeren betebeharrak baititugu —inpostuak, tasak,... ordaindu beharra—, baina eskubideak kendu egin dizkiguzue.

Bestetik, idatzian diote, ez dugula beraiekin lanik egin nahi: «Ideiak kopiatuko dizkiguten beldur garelako». Nola ez dugu nahiko gure ideiak kopiatzea, gure helburua hauek aurrera ateratzea bada. Guk beti erakutsi dugu gure lanerako gaitasuna eta gogoa, hori herriak badaki. Baina ez gaude prest gure ordezkariak baztertu dituen Udala legitimatu eta gure lanarekin PNV-EAko ordezkari gabezia estaltzeko. Bederatzi zinegotziaren hasi ziren —bost botoren arabera eta beste lau ez zegoen karguak lapurtuta—, gerora haie-tako batek kargua utzi zuen; gaur da eguna oraindik haren ordezkorik jarri ez dutela. Ikusi besterik ez dago zinegotzi bakoitzaren aportazioa, udal batzordeen egoera eta herriari begirako lana, udal talde honen gaitasunik ezaz jabetzeko.

Azkenik aipatzen dute Fidel Azpirozek udalean 17-20 ordu lan eginda jasotzen duen hileroko 2.500 eurotik gorako dirutza lantokian kobratzen ez duen kopurua dela. Bere lantokian hilean 5.000 eurotik (830.000 pezeta) gora ematen dioten edo ez, ez da gure egitekoa, nahiz eta askori zer pentsa emango dion. Guk salatzen duguna da ez dela bidezkoa alkatetik Udalean egiten duen lana herriari horrenbesteko dirutza suposatzea. Argi eta garbi esan behar da, lan ordu horiek eginda, urtean 6.000.000 pezeta baino gehiago poltsikoratzen duen alkatea, herriari baino gehiago bere poltsikoari begira dagoela.

Hau aurpegia!  
MIKEL URKOLA ETA MIKEL LARRION  
(ANOETARROK AUZOLANEAN  
PLATAFORMAREN IZENEAN) ▶ ANOETA

**Inauteriak, jai zoriontsuak**

Ehortzi dute sardina eta, honekin batera, amaitu dira astebeteko algara, salto, parranda eta ajeak; eta temperatura hotzarekin batera eguraldi tristea izan dugun arren, ezin izan digu ezerk Inauteri on batzuk igarotzea oztopatu. Badira, bestalde, egun hauek ospatzeko hainbat era, modu edo molde, eta nire helburua horietako hiru salatztea da.

Batetik, parrandan zibilizatu ibiltzen ez dakitenak kritikatzin ditut. Ez da lehen urtea izan eta ez da azkena izango kalera irtenaz batera muturrekoak banatzen aritu den norbait agertu dena, bakean ondo pasatu nahi duen gehiengoa izorratuz. Egundauetan bezala jende ugari biltzen den tokietan oso garrantzitsutzat jotzen dut elkarrenganako errespetua izatea eta, are gehiago, gureak bezalakoak diren jai handi eta alaietan. Jakina da ere badirela egun hauek aprobetxatuz beren ekoizkinak kalean saltzera datozen etorkinak, eta pena handiz ikusi dut beste behin euskaldunok baino gutxiago direla, ez dutela gure begirunea eta errespetua merezi, beren lurraldeetan hobeto daudela, eta abar, eta abar, eta abar. Hori bai, berriz ere lasai oihukatuko dugu Euskal Herri aske eta berdinkide baten alde.

Bestalde, eta zorritzarekin, joerak tamalgarri bat ari da gure herriaz eta gure Inauterietan jabetzen. Euskararen ordezkariak erabiltzeko, alegia. Aur-

ten, ez dut konpartsa bakar batean ere euskara erabiltzen entzun —baten bat egon bada nire barkamen eta eskerrik bereorenak—, eta txupinazioan ere erdarari eman zitzaion lehen-tasuna euskararen kaltetan, azken hau bigarren mailako hizkuntzat hartu baitzuten. Guztiok dakigu zein den gure hizkuntzaren egoera. Larria benetan, eta hemendik hizkuntza eder honen jakitun garen guztiok kuraiatu nahi ditut lotsa izpirik gabe erabiltzera, eta oroituz ez dela hizkuntza bat aurrrera ateratzen ondo dakitenek soilik erabiltzen badute, eta saiataz ikasten dela, ez dela inor hizketan jaino eta guztiz ondo ez mintzatzea ez dela inoren barre eragingarri. Horren erakusgarri dira atzerriatik etorri eta euskara ikasteari ekin diotenak, eta benetan bitxia eta pozgarria da azal beltzeko pertsona bat euskaraz entzutea.

Baina goazen harira, hementxe baitator nire benetako salaketa. Betidanik izan naiz zezeketen aurkakoa, baina orain arte ez nituen Inauterietan egin ohi direnak okertzat hartzen. Aurreko Ostiral Mehean, ordea, ezin izan nire nire herri-rikide diren tolosar gazteek zezenko eta pottokei emandako tratua jasan, eta zezen-plazatik kanpora irten behar izan nuen lotsa-lotsa eginda. Geroa ez dut bueltatzeko ausardiarik izan, ez eta asmorik ere. Asko gara animalien eskubideen alde gaudenak, baina mesede bat eskatzera noaizue: ez gaitzezen hipokresian erori, ireki ditzagun begiak eta ikus dezagun gure inguruan gertatzen dena. Astebete osoz, dozenaka zezen dira gure plazan torturatuak, berrogeita hamar pertsonatik gora beren inguruan zirikatzin dituztela. Balioez astintzen dituzte, eta Inauterietan oihokoak diren spray-ak aurpegira botatzen dizkiete begientzat narritagarri izan daitezkeen arren. Badakit urte askotako oihitua dela zezeketena, baina aldaketak onerako badira, beti dira mesedegarri; eta, azken finean, adimenak eta pentsatzeko gaitasunak egiten gaituela gizaki, hala diote, baina noren buruan sar daiteke teoriarik gure bakoitzaren den animalia baten sufrimenduz gozatzeko?

JOSEBA ADURRIAGA MAIZA ▶ TOLOSA

iragarki laburrak ▶

**LANPOSTUAK**  
Suhiltzaileak, Ertzaintza, polizia.  
2006ean lanpostu berriak.  
Informazioa: 943 313782.  
**Administrari laguntzaileak.**  
Hurrengo sarrerak: Beasain, Bergara,

Soraluze, Mutriku, Zizurkil, Mendara, Anoeta. Hilean 1.500 euro. Doako informazioa. 943 313782.  
**Garbitzaileak.** Lanpostu finkoak: Eusko Jaurlaritzan, ikastetxeak, ospitaleak. Informazioa: 943 313782.

**Gidariak.** Udaletan eta Foru Aldundian laster lanpostuak. **Kontratu mugagabeak.** 943 313782.  
**Sukaldariak eta sukaldari laguntzaileak.** Postu libreak Eusko Jaurlaritzan. Asteburuetan libre.

943 313782.  
**Petioiak, langileak.** Igeltseroak, elektrizistak, iturginak, lorezainak, palistak, gidariak. Lanpostu libreak udaletan. 943 313782.  
**Aireportuak.** Bete behar dituzte:

harreragileak, aireko kontrolatzaileak, suhiltzaileak eta mantentze-lanerako langileak. Informazioa: 943 313782.  
**Harreragileak.** Telefonistak, hurrengo deialdiak erakunde publikoetan. 943 313782.



X. TOLOSA GOXUA AZOKA ▶

# Goxoz goxo, gozo-gozo!


Eguraldi umela izanda ere, erleen antzera gozo bila ibili direnek aurkitu dute nahiko aukera azokan



750. urteurreneko logo tikiak egiten. J. A.

Sagar tarta lehiaketako irabazle Asiazararen (ezkerrean) eta bigarrena, Iraola, J. A.

Barkiloak bertan egin zituzten. J. A.



Txokolata izan zen izar bat, eta Tolosako bonbioak ere aurkeztu zituzten. J. GARZA

Jendexa, haitako aukera izanik, goxoena zein izanen: begiek ere jaten omen da eta. J. A.

### JAIONE ASTIRIA

Erris goian-behean. Kalean ibiltzeko giro umela; baina zer hobeagorik goxo puska batzuk hartu eta arratsalde-pasa azukretusa egiteko, non-maht ere. Horretarako, X. Tolosa Goxua azokan izutla egitea bezalako-rik ez zen izan atzo egurrean: handik, dozena erdi tranbuse-saiko bomba erosi; hemendik hurrezko txokolata beltz ontza bat, bestetik eskal pastela; hurrengotik... Gustu adina aukera egin eta gorputzari goxo-aldia emateko presatatu.

25 goxo-postru jarri zituzten San Francisco ibilbidean zehar atzoko azoka bere horretan. Dixe bakoztrak bere berezitasunak ageritu zituen jenduzar-rran. Tolosakoan artean, Saizarrenekoek, frutaz betetako hostorea, Eztezanekoek, telak eta zigarriloak; Gorrotategi-koek, bereziki atzorako egindako txokolatetako, kafeko, musikazko eta bestelako bonbak...

Gozogileek berarek baieztatu zutenek, atzoko azoka euren eguneroko lanaren erakus-lehio egokia da, «bertan eza-gutzen gaituzte, baina beste esku-ideietatik ere jende asko etortzen da egun honetan eta balagarria da oso». Zentzu horretan, Tolosaren 750. urteurrena ere goxoa izan zuten Gorrotategi-koek, txokolatetako bi metroko logoa erakiz, eta jendatzean erregilak txukoa-koak banatuz. Salmentarakin ere guxtura ageri ziren, egur-akilaren eraginaz denen aho-tan haustailen ere.

Sagar tarta lehiaketan 15 ja-gun aritu ziren, «kalkitatezko osagaiak erabili eta maximo» izanik, Asiazararek eta Irao-lak jaso zituzten lehen 2 saririk.

### Euria eta haizea nagusi atzo, asteroko azokan

Udaberria iritsi bitartean, neguko produktuak daude salgai oraindik

#### PABLO ALBERDI

Eguraldi buarra izan zen nagusi atzo, Tolosako azokan Tolosa Goxua azoka ere izan zelarik, eguraldia zela-eta jende kopuru-aldetik nahiko lasas izan zen goiza, bai ba-tan eta baita larunbateroko ohiko azokan ere. Trianguluan eta Berdura plaza-n, eguraldi onaren zain daude baserritarak: ea ho-rrak laria eta babo eta uda-berriko landare guztiak dut-zaten dituen, eta datorren hilera-ko salgai jartzeko mo-duan izaten diren. Horrela, eskaintza oraingoz negukoa da.

#### AZOKA ▶

Berdura plaza	merk.	garu.
Zakamena	5,00	-
Eromena	4,00	6,00

Bertako produktuak	litroarna	2,50	4,00
Amontak	1,00	3,00	
Zaberiak	1,00	1,50	

Produktu ekologikoak	Sagarra	2,00	3,00
Aza	2,50	3,00	

#### iragarki laburrak ▶

**LANA**  
Taberna. Aroetan, neska euskalduna behar da taberna 4. ordur lan egiteko. Eskarmentua guzua. 635 74 52 31.

**Saltzalea.** Behar denda baltan lan egiteko saltzalea behar da. Interesatuak deitu 665 70 64 04 telefono zenbakera.

**SALGAI**  
Furgoneta. Citroen Berlingo. 2003koak. 30.000 kilometro. Oso egoera onen. Deitu 635 73 63 75 telefono zenbakera.

**Kopistegia.** Alokarua edo salgai, ibarri kopistegia-printaria digitala. Laguntza izango duzu. Interesatuak deitu 615 73 61 85 telefono zenbakera.

**Enebitza.** Andragoi Olagin auzoan pisua salgai. 82 m<sup>2</sup>koa, 3 logela, sukalde, egongela, bainugelak, eta irratseko tokia. Egurkitsu eta bistu ederrekin. 943 59 01 58.

**Besterik.** Setler ingelasa jalaruntzeko salgai. eta Range Rover TDI 1993ko merke. Deitu 943 65 39 30 zenbakera.

**ingeniaritzaren IMH Ingeniaritza Eskola**

11e irakurketa martxoaren 18an goizeko 11:30an

**guzten gaituzte**

**guzten gaituzte**

**Goiko**

lorategi zerbitzuak

- Discinuak
- Ereintzak
- Landatzeak
- Uretatze sistemak
- Mantenimenduak

Tel.: 948 410 287 - 667 848 832

**BIDESONGO UDALA IRAGARKIA**

Goizago Dendak taberna-jatebidea eta etxebizitza errentan esketzeko lehiaketa deialdia egin du Udalak.

Deialdia dagoneko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu da eta interesatuak bere eskaintzak aurkezteko epea martxoaren 22an amaitzen da.

Planen ezarritako ezaugarri nagusiak hauek dira:

- ▶ Kanporaz: urtean 4.500 euro + BEZ lehiatzaileek hobe dezaketenak.
- ▶ Kontratuaren iraupena: bost urte zerbizua prestabean hasitako datatik aurrera.
- ▶ Garrantziak: behin-behineko garrantzi 600 eurokoa izango da.

Informazio gehiago udal idazkaritzan jaso dezakezue bulgo orduetan edo 943 681 109 telefono zenbakera deituz.

Bilgogoa, 2006ko martxoaren 16an

BIGA ENKANTEA ▶



### «Gustura» egindako salerosketa kopuruarekin

I. Garcia ▶ Biga arraza ezberdinak bitzen dituzten Gipuzkoako elkarrekin antolatuta, atzo goizean enkantea egin zuten Ferialakuan. Antolatzaileak «gustura» zeuden lortutako emaitzekin, ga-

### INAUTERIAK ▶



### Inauterizale sarituek txapela jaso dute

Eredezkoia ▶ Karroza eta konpartsa sarituetako partaideek euren txapelak jaso zituzten berenehun arratsaldean, udalarekin egindako ekitaldian. Espainiako txapelak urtero izaten

den maila ona alipatu zioten HITZAI: «Aurtten, gainera, konpartsetan maila altuagoa erakutsi dute. Ez da erraza izaten epala ematea, baita gure arrazari nahiko azkar jarri gara ados». i. a.

**Villabona - Kultura**

**HAUR ANTZERKIA**

**popolaldea**

**"Ama bat niretzat!"**

MARTXOAK 12  
ARRATSALDEKO Setan  
GUREA ARETOAN

Udal Kultura Buztordea

Gipuzkoako Foru Aldundia  
E.A.S. (Euskadiko Antzerki Sarea)

## KULTURA ▶



# Antzerki saltsa, tolosar erara

Joseba Usabiaga eta Iker Galartza duela zazpi urte hasi ziren antzezpeneren saskian eskua sartzen. Une honetan, hiru hariri tiraka dabilta: 'Goenkale', pailazo ikuskizuna eta 'Erreleboa' antzezlana

## IDOIA ETXEBERRIA - BERRIA

Iker Galartza eta Joseba Usabiaga. Tomax eta Tximista. Poxpolo eta konpainia. Biak tolosarrak, biak aktore, biak pailazo, biak... «Lagunak, eta horrekin nahikoak!», esan digu Ikerrek, barrez. «Zehaztea hobe, badazpada ere», Josebak. «Egun osoa elkarrekin ematen dugu, eta saiatzeko gara bakoitzak bere bizimodua egiten. Kiroldegira ere aparte joaten gara», argitu du Ikerrek. «Bera bostetan joaten bada, ni zazpitan!», Josebak.

Hori bai, elkarrekin ere egiten dituzte planak: «Baina ez dugu beti horretan pentsatzen. Mendian, parrandan... ez dugu lan konturik ibiltzen. Aspaldi ikasi genuen hori, eta esker-rrak! Bestela, uste dut erotu egingo ginatkeela. Gu, eta gure inguruko denak!», azaldu digu Ikerrek, ebakiari zurrutadana eman ostean, Tolosako ta-

berna batean, patxadan eta umore onean.

Iaz 64 emanaldi egin zituzten. Aurten, urtarriletik hona, 16ren bueltan dabilta. Eskolan hasi ziren antzerkiarekin zaletzen. «Eskola berekoak gara biok. Txikitatik zegoen ohitura Eguberrietan eta urte bukaeran antzezlana egiteko. Nik izena ematen nuen, eta Ikerrek ere bai. Urtero-urtero. Eta uste dut hortik datorrela gure zaletasuna», kontatu digu Josebak. Iker lau urte helduagoa bada ere, lagunak egin ziren. Hala sortu zen Poxpolo, Mokolo eta Konpainia pailazo taldea, duela zazpi bat urte, Ikerrek azaldu digunez. «Urtean behin prestatzen zen festa bat, eta pailazoena egiteko eskatu ziguten. Beti gustatu izan zaizkigu pailazoak, zirkua... Kristoren lana hartu genuela ikusita... 'Beste ikastoletara ere joango ginatke. Zergatik ez ba? Eskaini egingo dugu!' Eta

sei egitetik pasatzen zara nahi gabe 30 egitera...». Josebaren arabera, «goi asmorik gabe» hasi ziren, «poliki-poliki, amateur gisa».

Iker Poxpolo da. Josebak, berriaz, Konpainiako hainbat pertsonaia gorpuzten ditu. «Irakaslea, aurkezlea, ehiztari makarra... Nik beti Poxpolorena egin behar izaten dut; berak, aldatzeko zortea dauka». Hala-ko batean eta pailazo lanak utzi gabe, telebistara egin zuten salto. Orain bost urte. Iker aspaldi zebilen *Goenkale*-n figurante gisa, eta postari bihurtzeko aukera izan zuen: Tomax. «Jakin nuen behar zutela bat, ni baino gazteagoa...», eta Josebari esan zion. «Hala joan nintzen *casting*-era. Lanean, paperarekin, batera hasi ginena».

Tximistak egun ere jarraitzen du *Goenkale*-n: Tomax desagertu egin zen, gidioak hala eskatuta. «Baina birziklatu egin dute: euskara teknikaria

da orain!». Gidoilari lanetan dabil. «Elkarrizketak egiten ditut, eta gero, euskara zaindu, eguneroko borrokan. Lehen talde berean geunden, eta orain: 'Hi, hau ez dek ondo esan! Egon hadi ixilik, hau ondo zegok!' Hortxe ibiltzen gara. Honentzako idaztea tokatzen bazait, noski, errazago egiten dut. Halako esaldiak ondo etorriko zaizkio... Luzeak, motzak, pausak... Gustura nago; lan taldea zoragarria da». Hori bai, «sekulako inbidia pasatzen dut, onartzen dut. Kamerak harrapatu egiten zaitu. Antzerkian bezala da telebistan: interpretazioa ondo atera bada, hurrengo egunean egingo zenuke beste bat. Eta ez denean ondo ateratzen ere, beste bat egin beharra dago, aurreko arantza ateratzeko...».

*Goenkale* eskola ona dela diote, aho batez. «Zortea izan dugu. Aktore gazte batentzat, telebista mailan eskola ikara-

garria da. Ikasteko eta, aldi berean, soldata bat ateratzeko aukera ematen dizu», esan du Ikerrek. Joseba ere pozik dago Tximistaren azalean: «Isila eta lotsatia naizela esan dut beti. Eta Tximista lotsagabea da, zirikatzaila... Guztiz eraldatzen naiz, eta uste dut polita dela, hori dela antzezpena». Gurekin ez da oso lotsati agertu, hala ere. Eta isil ere ez.

## Erreleboaren garaia

*Erreleboa* etorri zen ondoren. Azpeitiko Antzerki Topaketan estreinatu zuten, abenduan, eta baita saria irabazi ere! «Ez genekien sariak ematen zituztenik ere! Gainera, estreinaldiak normalean izaten dira akatsak ikusi eta zuzentzeko... 'Badakigu behintzat txukun egiten ari garela!'. Helduentzat prestatu duten lehen lana da. Soldaduska egiten ari diren bi euskaldun dira oholtza

gainean, zaintzaldian, goizeko ordu txikietan. Soldadutzaren absurdoa erakusten du antzezlanak; «aitzakia da beste gauza batzuetaz hitz egiteko. Bi lagun aspertuta, hizketan, bakoitza bere kontuak kontatzen. Ez dauka mezu jakinik. Orain dela 20 urte bai, edukiko zuen, soldaduska tamalez nahiteazkoa zenean», Ikerren hitzetan.

Umerezko saioa den? «Umerezko tartek dauzka, isiltasun tartek... Ezinezkoa izango litzateke ikuslea ordu eta laurdenean barrezkatzea, eta orduan, saiatu gara oreka bilatzen: bost minutu barrez, gero hamar lasai, istorio polit bat entzuten...», azaldu digu Josebak. Ikerren ustez, «inportantena da jendeari denbora ti-ta batean pasatzea. Hori da helburua: antzerkira joan eta ondo pasatzea, uneaz gozatzeari». Ordu eta laurden egiten dute taula gainean; Josebark «oso gogorra» egin zitzaion hainbeste testu buruan gordezea. «Testua ikasi, eta politikoliki bizia eman... Zortea da Joseba eta biok lankideak izatea, elkar ondo ezagutzea, eta biok tolosarrok izatea, geldituzeko. 'Etorri hadi etxera eta hau begiratu diagu!'».

Udan hasi ziren gidioa irakurtzen; Ernesto Caballero idazlearena da. «Gero, Ikerrek egokitu zuen, euskarara, eta aldaketa batzuk egin zituen. Antzezlanak oso harrera ona izan du.». Eroso sentitzen diru taula gainean: «Tentsio puntua behar da, baina urduritasunik ez da komeni. Ikerri gustatzen zaio hasi aurretik beti zigarrata erretzea, inorekin hitz egin gabe. Bakoitzak bere metodoak ditu. Niri gustatzen zait bakarrik egotea, hamar minutuan».

Nola demontre egiten duten hiru eginkizunak bateratzeko? «Oraingoz, ez dugu arazo handirik. Astegunetan egoten gara *Goenkale*-n, eta asteburuetan, arratsaldeetan izaten dira umeen emanaldiak, eta gauean, *Erreleboa* antzezlanak. Saiatzen gara bi herriak egiten oso urrun, erraz iristeko. Bateragarriak dira», Josebak. Baina ez dute denbora libre askorik ere. Goizeko zapietatik arratsaldeko hirurera *Goenkale*-n daude. «Arratsaldean ikusten bagaitu norbaitek, esaten digu: 'Zuek bai ondo bizi zaretela! Kafea hartu eta...' Baina ostiral gau batean, mundu guztiak jai daukanean gaude Gasteizen, eta larunbatean, Berrizen eta igandean, Dulantzian, eta inork ez gaitu ikusten!», dio Ikerrek barrez. Ez da kexu, hala ere: «Ez dut uste aparteko meriturik dugunik. Gustatzen zaiguna egiten dugun».

Antzerkia ala telebista? Ez dute asmatu esaten: «Beti esaten da antzerkian erantzuna berehalakoa dela, eta telebista askoz ere hotzagoa dela, baina nahia-goa-nahia-goa...», Josebak ez daki. «Desberdinak dira era-bate. Telebista ere ikaragarri polita da. Kokatzen ikasten duzu, testua non bota, zerk bali duen, zerk ez... Telebistak xehetasun txiki guztiak hartzen ditu; antzerkian, gauzak pixka bat handiago egin behar dira, atzoko ilaratik ere ikus daitezkeen...», horra Ikerren azalpena. «Antzerkian gehiago arriskatzeko da, lan gehiago egin behar da orduz kanpo, errepedean asko ibili... Gustatu beharra dago. Ez da bakarrik taulara igo eta txaloak jasotzea! Guri, gustatzen zaigu furgoneta hartu eta herrietara joatea... Baina bai, askoz esker onekoagoa da telebistan behin azaldu eta *Itak* jendeak ezagutzea».

Telebistak antzerkirako bidea erraztu diela ere badio Ikerrek, *Goenkale*-n hasi zirenetik Poxpolok eta Konpainiak udalteeetako ateak irekiago aurkitu dituztela. «Hemen utzi eta bigaratu dugu», esaten ziguten lehen. Orain, berriz: 'Hau ere egiten duzue, umeentzako... pasatu aurrera!' Beste harrera bat. Eta ikasi egin dugu asko, baina duela zazpi urte ere gauza oso politak egiten genituen». Lanera Madrilerara joatea zer iruditzen zaien ere galdetu diegu. Ez dago beraien ametsen artean. Probatuko lukete, baina ez dira horren bila joango, oraingoz. Oso ondo bizi dira Tolosan. «Han hiru hilabetean irabazten dena hemen politikoliki nire martxan irabaztea badaukat, gustura», esan digu Ikerrek.

#### Pasadizo ugari

Komediaren eta dramaren artean, komedia aukeratu dute. «Guk betidanik hori egin dugulako», Josebaren erantzuna. «Bai, uste dut espezializatzen ari garela, nahi gabe. Hau herri txikia da, eta produktua saldu egin behar da. Ezin dugu kolpetik erabateko aldaketa egin. Jendea doa Tximista eta Tomax ikustera, eta zer, *Hamlet* egin behar dugu? kar-kar», Ikerrek. Hori bai, publikoa haurrak edo helduak izan, alde handia ei dago. «Umeak askoz zorrotzagoak dira. Ez bazaie gustatzen, amari eskutik heldu eta joan egingo dira! Helduak, errespetuz, hor geratuko dira. Eta bukaeran txalo egingo dute. Umeekin, bukatu bezain pronto badakizu ondo atera den ala ez; helduekin, igual ez», esan digu Josebak. Ikerrek arrazoia eman dio: umeak dira termometrorik onena.

### A ZE PAREA ▶ IKER ETA JOSEBA, JOSEBA ETA IKER

#### ATZERA BEGIRA

**Iker.** «Umetan nahiko lotsagabea nintzela esaten dute. Lotsagabea, baina zalamerao ere bai, nahiko pelota irakasleekin. Ez nintzen oso ikasle ona. Bizkorra bai, baina alfer samarra. Gogoratzen naiz 9 urterekin Gabonetako antzerkia prestatzen genuenean Herodes erregearena egiten nuela, eta desiatzen egoten nintzen. Eta Joseba, ezagutu nuen umetan, eta hari ere gustatzen zitzaion. Isilagoa zen...».

**Joseba.** «Eta ez nintzen batere pelota! Ni irakasleekin oso gaizki moldatu izan naiz beti. Nahiko bihurtu nintzen». Joseba imitazioak egiten ibiltzen zen: «Julio Iglesias eta... eskebak egiten genituen, aspaldi, 15 urterekin».

#### ZOZOAK BELEARI

**Joseba.** «Iker nolakoa den? Igual haserre irtengo gara tabernatik!... Pertsona ona. Oso eskuzabala». Iker barre algaraka dago, aldamenean. «Eta idazle oso ona. Igual, eta zer edo zer txarra esateko: agintzea gehiegi gustatzen zaiola. Hiru on eta txar bat esan dizkizut. Nahikoa?».

Pasadizo batzuk ere kontatu dizkigute. «Aurreko batean, *Erreleboa* egiten ari ginela, publikoan bazegoen bat ezerrergatik barre egiten zuena, garaiz kanpo. Mundu guztiak barre egiten zuenean, isildu egiten zen, segitzen genuen antzerkian, eta bat-batean kar-kar... Ostia txarrean jarri gintuen». Josebak jarraitu du: «Bai, jendeak arreta galtzen zuen... Horietaoak asko izan dira. Behin, Errenterian, emakume bat sartu zen erdian *La Farola* saltzen! Edo gurasoak igo eta grabatzen hasi, gure inguruan bueltak emanez...».

Errepedean ere badituzte anekdotak: «Herrietatik alde egitean izaten ditugu komeria gehien. Bidean galtzen gara ikaragarri! Despisteengatik, hizketan...», esan du Ikerrek. Josebak zergatia azaldu digu: «Iker hasten da hitz egiten antzeppenaz... Bueltan, saiatzen naiz beste autoan joaten, nonen matraka ez entzuteagatik!». Barre egin dute biek. Sei lagun joaten dira pailazoetara, kantari eta kontu kontari; Albano eta Romina-eta abesten. «Guardia Zibilak geratzen gaituenean, pixka bat harritu egiten dira. Akelarre eta Anje Duhalderen ondoan, Enrique Iglesias, Mari Trini...». Abeste-ko zaletasuna dute. Eta tolosar on bezala, mozorrotzekoa.

**Iker.** «Ni txarrekin hasiko naiz. Pixka bat alferra da. Bere gainean egon behar da batzuetan, pixka bat matraka eman behar zaio. Gero, oso langilea da. Eta egiten duen lana ikaragarri gustatzen zaio; gozatu egiten du. Beste gauza bat ona daukana da eraman-erraza dela. Edozeinekin lan egiteko balio du, ondo konponduko da irekienarekin eta arraroenarekin. Ahalmen hori dauka, eta erraza da berarekin lan egitea. Orain, egun horretan pentsatuta badauka zapietatik zortzietara korrika egin behar duela, bakean utzi behar zaio! Ahaztu zait esateko dantzari ona dela! Ez dut sekula ikusi neska batekin dantzan... baina bakarrik, oso ondo!», esan du, barrez. «Eta kantuan, biok gara onak!», Josebak.

#### ZALETASUNAK

**Iker.** «Mendia bai, baina ez gara asko joaten. Gustatzen zait beste batzuen antzerkiak ikustera joatea, jatea gustatzen zait ikaragarri, sagardotegietara joatea, elkartera... Zinema-eta normal, pelikula asko pasatzen zaizkit konturatu gabe aldamenetik,

eta ez naiz batere preokupatzen. Oestekoak gustatzen zaizkit, eta Cantinflas...». **Joseba.** «Gustatzen zait asko korri egitea, eta lehenago eskiatzea, baina azken bi urteetan ez dut apenas eskiatu. Mendira joatea, larunbatean ateratzea... Eta bideoan ere ikusten ditugu pelikulak, ebean... Inork ikusten ez dituenak. *Cuestion de pelotas*, *La vida de Bryan*... Edozein: *Mister Been*. Ez ditugu *Casablanca* eta horrelakoak ikusiko. Kar-kar. Gu ez gara klasikoak, arraroak gara kontu horietan».

#### KURRIKULUA

**Joseba.** Enpresa Administrazioa ikasi zuen, Oñatin. **Iker.** Hiru ikasgai falta zaizkio Euskal Filologia bukatzeko: «Euskal Filologiako ikaslea, jartzen didate elkarrizketetan. Eta lotsa pixka bat ere ematen dit. Amak ikusten duenean... Gasteizen, euskaltegi batean klaseak ematen ibili nintzen, baina nazkatu egin nintzen... Bi ikasgaitan nahiteazkoa da eskolara joatea. Bukatuko dut egunen batean!».

## Konparaketa egin

**beste batzuk,**  
besturorrotzeko pasadizo egin nahidazko zaitzute

**EROSKI/bidaiak**  
Praktikoki onakak zuzenean zuzentzen

**Eskaintza berezia Aste Santurako eta Pazko Asterako**

<p><b>Costa Brava</b>  <small>TOSSA DE MAR. Apirilaren 13an, 5 egun - 8 gau. Adosak. San Juan Hotel****, Mendizola Hotel****</small></p> <p style="font-size: 2em; font-weight: bold;">297€</p>	<p><b>Galicia</b>  <small>SAKREKO. Apirilaren 17an, 7 egun - 8 gau. Adosak. Las Nerejas Hotel****, Mendizola Hotel****</small></p> <p style="font-size: 2em; font-weight: bold;">180€</p>
<p><b>Florenzia-Roma</b>  <small>APRILAREN 13AN, 5 EGUN ADOSAK, FRENCH HOTEL****, HOTEL SAN JUAN HOTEL****, NATIONAL HOTEL****, JAZZAKI BARRIO, FLORENCIA ETA ROMA IRABITZA BARRIO.</small></p> <p style="font-size: 2em; font-weight: bold;">399€</p>	<p><b>Florenzia-Venecia</b>  <small>APRILAREN 17AN, 7 EGUN ADOSAK, HOTEL FLORENZA HOTEL****, FALDO HOTEL****, ALBA HOTEL****, JAZZAKI BARRIO, FLORENCIA ETA VENECIA IRABITZA BARRIO.</small></p> <p style="font-size: 2em; font-weight: bold;">389€</p>

\*Hotelek inguruko lagunak dituzte. San Esteban Hotel eta Duhalde Hotel jaiak. Berrizola CE 628. 2004 urtea.

Kontsulta itzazu Aste Santurako eta Pazko Asteko eskaintzak gure bulegoetan edo behibidean [www.viajerosroski.es](http://www.viajerosroski.es)

**EROSKI/bidaiak**

merezi duzu





Harpidedunei banatua ▶ 2006ko martxoaren 12a, igandea ▶ IV. urtea

GAURKO EGURALDIA



11



09



BIHARKO EGURALDIA



ELURRA ARALARREN



Pagomari: gaur: ez / bihar: ez

HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko...)

943 30 43 46

AGENDA ▶

ANTZERKIA

Villabona. Ama bat niretzat haur antzerkia. 17:00etan, Gurea zineman.

DEIALDIAK

Asteasu. Abesbatzakoek kantujira egingo dute hilaren 25ean, 12:00etan hasita. Ondoren, bazkaria egingo dute. Izena emateko 687 27 31 63 zenbakira deitu hilaren 17a baino lehen.  
Leitza. Txistu emanaldia Anjel Alduntzinen omenez. 12:00etan, Karrapen. Gero salda banatuko dute.  
Tolosa. Santa Maria kaperak eta Udalak omenaldia egingo dio Pepe Arzelus organistari hilaren 19an. Bazkarirako (Frontonen) bartelak sagai Zabala estankotan, Lardiesen eta Santa Maria parrokian.

IKUS-ENTZUNEZKOAK

Ibarra. Bidezko merkataritzaz, Caritas-eko Nazioarteko kooperatzaile Koldo Muroren eskutik. Bihar, 20:00etan, parrokiako lokaletan.

ZINEMA

Leitza. El jardinero fiel. 19:30ean, zineman.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur

Leitza. Gimeno, A. Elbarren 52. 112.  
Tolosa. Santa Maria, I. Nafarroa etorbidea, 2. 943 65 46 10.

Bihar

Leitza. Larraia, M. I. Elbarren, 95. 112.  
Tolosa. Azpiroz, M. L. Amaro, 9. 943 67 51 18.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.

# Euriak dakarrena

TOLOSALDEA-LEITZALDEA ▶ Etengabeko euriek eragina izan dute: Tolosako kiroldegiko beheko solairua urez bete da eta Leitza errekek gainezka egin dute



Urak Usabalen beheko solairuko tarima eta tatamiak hondatu ditu; Leitza Landako alorrak urez bete ditu uholdeak. I. GARCIA / J. ASTIBIA

AGURRAK ▶

Urtebetetzea, jaiotza, ezkontza, jaunartzea, urrezko ezteiak, agurrak... hemen argitaratzeko etorri HITZAren egoitzara; ekarri argazkia



URTE ASKOAN

Arene eta Izadi Lasa Nieto (Laskibar). Arenek gaur 2 urte. Izadik gaur 5 egun. Zorionak eta ongietorriak gure artera! Muxu asko amaboi, aitaboi eta gainontzekoen izenean.



URTE ASKOAN

Maitte Tolosa Aizpuru (Amezketeta). Gaur 8 urte. Zorionak familia guztiaren partetik.



URTE ASKOAN

Unai Ponce Barandiaran (Alegia). Zure familiarean partez ondo pasa.



AUPA ION!

Igo gailurreraino urte askoan. Zorionak! Gaur bezalako egun batean etorri zinen mundura. Zu ezagutzeko aukera izan dut. Eskerrik asko zaren bezalakoak zarelako.

ERREDAKZIOA

Egunotan botatuko euriak bere eragina izan du bi eskualdeetan. Tolosako Usabal kiroldegia beheko solairua urez gainezka esnatu zen atzo. Jokin Bildarratz alkateak HITZARI adierazi dionez, arazoak kiroldegia 15. gainezkabidean izan dira: «Bere funtzioa eraikineko ur zikinak ibaira bideratzea da, baina erreka ur mailak gora egin duenean alderantzizko prozesua gertatu da, eta erreka ura kiroldegira sartu da. Orain [atzo arratsaldean] ura ateratzen ari dira, eta gainezkabidera heltzeko aukera dagoenean, ikusiko da zer gertatu den eta hortik zehatuko dira erantzukizunak».

Leitza, Gorritaran eta Erasote errekek Leitza ibaiaren bihurtzen diren lekuan urak gainezka egin zuen atzo, Landako alorrak urez betez.



▶ HITZA harpidedunen artean...

ESTILISTAK  
**honekin**

**HONEKIN** Ileapaindegian zerbitzu osoa eta ilearen tratamendurako bi produktu zozketatuko ditugu.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAren harpidedun ordaintzaileen artean zozketak astero